MARZO 2023KO MARTXOA

# BARAÑÁIN

**BOLETÍN INFORMATIVO MUNICIPAL / *UDAL INFORMAZIOAREN ALDIZKARIA***

AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



## PRESENTACIÓN

En los últimos años Barañáin ha sufrido una gran cantidad de cambios en sus calles e infraestructuras y por eso desde el ayuntamiento siguiendo con la línea de transparencia y comunicación hemos creído conveniente editar este breve boletín que incluye un resumen de estas obras y de las inversiones que han supuesto.

Como podréis observar, una parte importante de las obras han sido nuevas construcciones que mejorarán los servicios públicos de nuestro pueblo, pero también hemos invertido en mejorar y renovar infraestructuras ya existentes y en la mejora de calles, aceras y pasos de cebra.

Os recordamos que a través de nuestra web y redes sociales podéis indicarnos cualquier desperfecto o mejora que creáis necesaria para que desde el ayuntamiento revisemos. Estamos a vuestro lado para entre todos seguir mejorando Barañáin.

## SARRERA

Aldaketa ugari izan da azken urteetan Barañaingo karrika eta azpiegituretan, eta, horregatik, udalak, gardentasun eta komunikazio ildoari jarraikiz, egoki iritzi dio egindako lanen eta inbertsioen berri ematen duen buletin labur hau argitaratzeari.

Ikus dezakezuenez, egin diren lanetako asko gure herriko zerbitzu publikoak hobetzeko eraikuntza berriak izan dira, baina lehendik baziren azpiegiturak hobetzen eta berritzen ere  inbertitu dugu, eta baita kale, espaloi eta zebra-bideak hobetzen ere.

**PARQUES INFANTILES** / **HAUR JOLASTOKIAK**
**CENTRO DE DÍA** / **EGUNEKO ZENTROA**
**EDIFICIOS** / **ERAIKINAK**
**CALLES** / **KALEAK**

# Parques infantiles

# Haur jolastokiak

## PIRÁMIDE DE CUERDAS Y PARQUES INFANTILES

El Ayuntamiento ha instalado una pirámide doble de cuerdas en el Parque de la Constitución, siguiendo su política de actuaciones y mejoras en las zonas de juegos infantiles, para que los más pequeños puedan disfrutar de los espacios públicos. En este caso, esta actuación viene a completar una zona de marcado carácter lúdico, con el skatepark y la zona de juegos infantiles cubierta, complementado con el baño autolimpiable instalado a finales del año pasado.

## SOKAZKO PIRAMIDEAK ETA HAUR JOLASTOKIAK

Sokazko piramide bikoitza jarri du udalak Konstituzio plazan, haurren jolaserako eremuak hobetzeko politikari jarraikiz, gure umeek kalean ere goza dezaten. Horrela, jolastoki izaera nabarmena duen gune bat osatu da, bertan baitaude skate parkea eta haurrendako jolastoki estalia, iazko urtearen amaieran jarri zen berez garbitzen den komunarekin batean.





## PARQUE PLAZA DE LOS TILOS

El Ayuntamiento de Barañáin va a proceder a la instalación de varios elementos de juegos infantiles en la Plaza de los Tilos, complementados con un área de pavimento continuo de caucho de seguridad. Se trata de una instalación muy demandada y que, a pesar de las dificultades técnicas que entraña (al existir un aparcamiento subterráneo en la zona), va ser posible resolverlo con una solución técnica adecuada.

## EZKI PLAZAKO HAUR JOLASTOKIA

Jostaketarako zenbait gailu berri jartzeko asmoa du Barañaingo Udalak Ezki plazan, eta baita kautxuzko segurtasuneko zoladura ere. Maiz eskatutako instalazioa da, eta nahiz eta berez zailtasun teknikoak dauden, bertan dagoen lurpeko aparkalekua dela eta, konponbide tekniko egokia emanen zaio.






## CUBIERTAS DE LOS PARQUES INFANTILES DE SAN ESTEBAN Y DE PLAZA FUEROS

El Ayuntamiento de Barañáin ha adjudicado las obras de ejecución de las cubiertas de los parques infantiles de la calle San Esteban y de Plaza Fueros a la empresa Maderplay por importe de 71.820 euros. Este proyecto está actualmente ya en ejecución (la cubierta de San Esteban está ya finalizada y la de la Plaza Fueros está próxima a su finalización) y, además de la cubierta en base a una solución textil tensada, se dotará de iluminación tipo LED al parque infantil, lo que permitirá ampliar el horario y utilización del mismo.

## DONE EZTEBE KALEKO ETA FORU PLAZAKO HAUR JOLASTOKIAK ESTALPETZEKO LANAK

Done Eztebe kaleko eta Foru plazako haur jolastokia estalpetzeko lanak Maderplay enpresari adjudikatu dizkio Barañaingo Udalak. Lan horien kostua 71.820 eurokoa izanen da. Gaur egun, proiektu hau burutzear dago, Done Eztebeko haur jolastokiaren estalkia bukatua baitago eta Foru plazakoa amaitzear, eta, estalkiez gain, haur jolastokiak LED erako argiztapena izanen dute, ehun tenkatuko egitura bati esker, gehiago eta ordutegi zabalagoan erabil ditzaten.



## CUBIERTA DEL PARQUE INFANTIL DE LA AVDA. COMERCIAL

Ya se han llevado a cabo las obras de ejecución de la cubierta del parque infantil de la Avenida Comercial. Este parque infantil, que ya contaba con una celosía de protección solar, pero que no impedía el paso de la lluvia, cuenta ahora con una superficie cubierta, lo que permite ampliar la utilización del mismo. La actuación ha consistido, por una parte, en la cubierta de la celosía ya existente, y, por otra parte, en la ejecución de una cubierta textil tensada. La obra ha contado con una subvención del Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra.

## MERKATARITZA ETORBIDEKO HAUR JOLASTOKIA ESTALPETZEA

Amaitu dira Merkataritza etorbideko haur jolastokia estalpetzeko lanak. Haur jolastoki horrek bazuen eguzkitik babesteko sareta bat, baina euritik babesten ez zuena, eta orain estalkia jarri zaio, gehiago erabil dezaten. Batetik, lehendik zegoen sareta hori estali egin da, eta, bestetik, ehun tenkatuko egitura bat ezarri da. Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuaren dirulaguntza bat jaso da lan horiek egiteko.

# Centro de día

# Eguneko zentroa

El centro de día proyectado para Barañáin verá la luz en breve, tras la adjudicación de las obras de adecuación de una serie de locales municipales a la empresa Navitec Rehabilitación. Los locales que se adecuarán son los utilizados anteriormente como Juzgado de Paz y otros que, desde 2018 hasta ahora, estaban cedidos a colectivos de la localidad. Se encuentran situados en la Avenida Comercial, muy cerca de los Servicios Sociales, de uno de los locales del club de jubilados y del centro de salud Barañáin I, y en un entorno recientemente reurbanizado. El importe de la obra asciende, con IVA, a 524.000 euros.

El centro de día contará con 30 plazas, teniendo en cuenta la previsión de necesidades hecha por los Servicios Sociales de la localidad.

Aurki irekiko da Barañaingo herriarentzat prestatutako eguneko zentroa, Navitec Rehabilitación enpresari esleitu baitzaizkio udalaren zenbait lokal egokitzeko lanak. Aipatu lokalak bake-epaitegiaren egoitza zena eta beste batzuk dira, 2018tik herriko zenbait talderi utziak zeudenak. Merkataritza etorbidean daude, gizarte zerbitzuetatik, erretiratuen klubetik eta Barañain I osasun-etxetik oso hurbil, eta berriki berriz urbanizatu den eremu batean. Lan horien kostua 524.000 eurokoa da, BEZa barne.

30 lagunendako lekua izanen du eguneko zentroak, herriko gizarte zerbitzuek egindako aurreikuspena kontuan hartuta.

# Edificios

# Eraikinak

## GRADA LAGUNAK

Las instalaciones deportivas de Lagunak contarán con una nueva grada cubierta, uno de los proyectos más demandados y necesario para nuestros vecinos.

El proyecto de este espacio contempla la construcción de unas gradas cubiertas para el campo de fútbol y, en su parte inferior, se prevén vestuarios, salas de reunión, despachos y almacenes, para de esta manera realizar una mejor distribución y reorganización de los espacios ya existentes.

El presupuesto para esta obra es de 910.000 euros.

Esta infraestructura dotará a Lagunak, además, de un nuevo graderío para el público y los espacios podrán ser utilizados por las diferentes secciones deportivas.

## LAGUNAKEKO HARMAILAK

Lagunakeko kirol instalazioek estalitako harmaila izanen dute, herritarrek maiz eskatutako  premia handiko proiektua.

Egitasmoaren arabera, futbol-zelaian eginen dira harmaila horiek, eta haien barrenean aldagelak, bilera-aretoak, bulegoak eta biltegiak; hartara, egungo eremuak egokiago antolatu ahal izanen dira.

Lan horien aurrekontua 910.000 eurokoa da.

Azpiegitura honek, gainera, ikusleendako harmaila berri bat izatea ekarriko dio Lagunaki, eta kirol atalek erabili ahal izango dituzte harmailapeko guneak.

## CUBIERTA DE LA PISTA DE PÁDEL DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS LAGUNAK

El Ayuntamiento de Barañáin ha acometida la ejecución de la cubierta de la pista de pádel de las instalaciones deportivas Lagunak. Esta actuación ha contado con subvención por parte del instituto Navarro del Deporte.

## LAGUNAKEKO KIROL INSTALAZIOETAKO PADEL PISTA ESTALPETZEA

Lagunakeko kirol instalazioetako padel pista estalpetzeari ekin dio Barañaingo Udalak. Nafarroako Kirol Institutuak lagundu ditu diruz lan horiek.



## EJECUCIÓN DE SOLERA NUEVA EN ZONA DE VESTUARIOS Y ALMACÉN EN LA PISTA DE ATLETISMO

El Ayuntamiento de Barañáin ha ejecutado una serie de arreglos en las pistas de atletismo de la localidad, demandadas desde hace tiempo por los usuarios. La actuación ha consistido en la ampliación de la solera de hormigón en la zona de los vestuarios y almacén, así como en la reparación de la canaleta de recogida de pluviales.

## ATLETISMO PISTETAKO BILTEGIAREN ETA ALDAGELEN ZORUA BERRITZEA

Atletismo pisten erabiltzaileek aspaldi eskatutako hainbat konponketa egin ditu Barañaingo Udalak. Biltegiko eta aldageletako hormigoizko zorua zabaltzeaz gain, euri-ura biltzen duen teilatuko erretena ere konpondu da.



## MEJORAS REALIZADAS EN LOS COLEGIOS

El Ayuntamiento solicitó subvenciones al Gobierno de Navarra para poder realizar todas las mejoras que desde los colegios nos transmitían como necesarias. Este año no se ha concedido a esta localidad ninguna subvención para estos proyectos y por eso el Ayuntamiento ha intentado llevar a cabo aquellas que podía dentro de su presupuesto establecido.

Esperamos que este año se conceda alguna subvención y si no, se intentará seguir avanzando con el máximo de proyectos posibles.

## IKASTETXEETAN EGINDAKO HOBEKUNTZAK

Udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zion, ikastetxeetan beharrezkotzat jotzen zituzten hobekuntza guztiak egin ahal izateko. Iaz herri honi lan horiek egiteko inolako dirulaguntzarik eman ez zitzaionez, udala saiatu zen indarrean zegoen aurrekontuaren barnean egin zitzakeenak egiten.

Espero dezagun aurten dirulaguntzaren bat jasotzea. Hala ez bada, ahal den proiektu gehien egiten segitzen ahaleginduko da udala.

### Reparación parcial cubierta Sauces

El Ayuntamiento de Barañáin adjudicó a la empresa Cubiertas Larra S.L. la obra para la reparación parcial de la cubierta del colegio público Sauces. Los trabajos empezaron a finales del año 2021 y la actuación, con un coste total de 91.030,76 euros, consistió en la reparación de la cubierta de chapa existente para la colocación sobre ésta de un nuevo panel de cubierta dotado de aislamiento térmico.

### Sahats ikastetxeko estalkiaren konponketa partziala

Cubiertas Larra S.L. enpresari adjudikatu zizkion Barañaingo Udalak Sahats ikastetxe publikoaren estalkia konpontzeko lanak. 2021. urtearen amaieran ekin zioten lanari, lehendik zegoen xaflazko estalkia konpondu zen, haren gainean isolamendu termikodun beste estalki bat ezartzeko. 91.030,76€ gastatu dira lan horietan.

### Reparación parcial cubierta Alaitz

El Ayuntamiento de Barañáin adjudicó a la empresa Naplitex la obra para la mejora de la cubierta del colegio público Alaitz. Los trabajos empezaron a principio de este año y la actuación, con un coste total de 79.907 euros, consistió, primero, en la retirada de la lámina autoprotegida de una zona de las cubiertas del colegio y la revisión y reparación del soporte.

Después, se procedió a la retirada del canalón existente de chapa y su sustitución por uno nuevo, de 1,2 mm. de espesor, a fin de que no se reproduzcan los problemas de oxidación que han llevado a tener que realizar esta reforma. Además, se colocó el aislamiento térmico sobre el soporte, para mejorar las prestaciones de la envolvente, y se procedió a la colocación de una lámina de impermeabilización compatible con la nueva configuración de la cubierta.

### Alaitz ikastetxeko estalkiaren konponketa partziala

Naplitex enpresari esleitu zizkion Alaitz ikastetxe publikoaren estalkia konpontzeko lanak Barañaingo Udalak. 2022. urtearen hasieran ekin zioten lan horri, eta, lehenik, ikastetxearen estalkien zati batean zegoen xafla kendu zuten, eta haren euskarria ikuskatu eta konpondu. Ondoren, euri-ura biltzeko xaflazko erretena kendu zuten, eta haren ordez 1,2 milimetroko lodierako erreten berria jarri, udala konpontze lan horiek egitera behartu duten herdoiltze arazoak saihestearren. Bestalde, euskarriaren gainean isolamendu termikoa ezarri zen, eraikinaren inguratzailea hobetzeko, eta estalkiaren egitura berriarekin bat datorren xafla iragazgaitza jarri zen. 79.907€ gastatu dira lan horietan.

Además de estas reformas, los colegios habían pedido la reparación parcial de la cubierta, en la parte donde se ubican las chimeneas correspondientes a la sala de calderas del CP Eulza; y la sustitución parcial de carpinterías incluyendo las de acceso al edificio y al patio del CP Alaitz.

Lan horiez gain, ikastetxeek honako konpontze-lan hauek egiteko eskatu zuten: Eultza ikastetxe publikoaren estalkiaren zati bat konpontzea, hain zuzen ere, galdaren gelatik ateratzen diren tximiniak dauden teilatu atala, eta Alaitz ikastetxe publikoko zurajearen atal bat konpontzea, eraikin sarrerakoa eta jolastokikoa barne.

## MEJORAS REALIZADAS EN LAS ESCUELAS INFANTILES

### Escuela infantil castellano

El Ayuntamiento de Barañáin adjudicó a la empresa Cubiertas Larra S.L. la obra para la reparación de la cubierta del acceso de la escuela infantil de castellano, con un coste total de 13.193 euros. El trabajo ha consistido en la reparación de la lámina de impermeabilización en el encuentro con el canalón existente, en la colocación de un nuevo aislamiento térmico bajo un nuevo panel de cubierta y en la ejecución de una serie de rebosaderos para evitar la acumulación excesiva de agua en la mencionada cubierta.

## HAUR ESKOLETAN EGINDAKO HOBEKUNTZAK

### Gaztelerazko haur eskola

Cubiertas Larra S.L. enpresari adjudikatu zizkion Barañaingo Udalak gaztelaniazko haur eskolako sarreraren estalkiaren konpontze-lanak. 13.193€ gastatu dira horretan. Xafla iragazgaitzaren eta lehendik zegoen erretenaren arteko elkargunea konpondu zen, estalki berriaren azpiko xafla iragazgaitza ezarri zen, eta aipatu estalki horretan urak gainezka egin ez dezan zenbait bide paratu ziren.



## ENVOLVENTE AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento de Barañáin recibió, a través de los fondos “Next Generation”, una subvención de 1.443.652,53 euros correspondiente a una línea de actuación destinada únicamente a la reforma y rehabilitación de edificios públicos.

El Ayuntamiento utilizará esta subvención para mejorar la eficiencia energética de la Casa Consistorial, transformándolo en un edificio con calificación energética A, que permita alcanzar un ahorro de energía no renovable del 58,67%. La intervención permitirá además actualizar la imagen del edificio.

La actuación planteada contempla la rehabilitación de la envolvente térmica, incluyendo fachadas, cubierta y carpinterías exteriores, para reducir las pérdidas energéticas del edificio, y la renovación de sus instalaciones térmicas con la sustitución de las calderas de gas por aerotermia, cambio de las bombas de calor existentes por equipos más modernos de mayor rendimiento, e implantación de paneles fotovoltaicos en cubierta para autoconsumo.

La fachada se plantea como una fachada ventilada con subestructura metálica, aislamiento acústico y acabado de piezas de cerámica alveolar para actualizar la imagen del edificio. En las cubiertas transitables se realizará la colocación de aislamiento por el interior, y en las cubiertas no transitables, la colocación de aislamiento adicional sobre el ya existente. Además, se aprovechará para la reparación de la impermeabilización, que en la actualidad presenta filtraciones.

## UDALETXEAREN INGURATZAILEA

1.443.652,53 euroko dirulaguntza jaso zuen Barañaingo Udalak “Next Generation” diru funtsetatik, eraikin publikoak zaharberritzeko berariaz sortutako lan ildo bati dagozkion funtsetatik, hain zuzen ere.

Udaletxearen energia eraginkortasuna hobetzeko erabiliko du Barañaingo udalak dirulaguntza hori, A mailako ziurtagiri energetikoa duen eraikina izan dadin, bertan kontsumitzen den energia ez berriztagarriaren %58,67ko aurreztu dadin. Bidenabar eraikinaren beraren itxura ere berrituko da lan horien bitartez.

Aurreikusitako lanen bidez, inguratze termikoa berrituko da, fatxadak, estalkia eta kanpoko zurajea barne, eraikineko energia galtzea murrizteko, eta instalazio termikoa ere bai, gas galdarak kendu eta aerotermia sistema jarriko baita, egungo bero-ponpen ordez gailu modernoago eta eraginkorragoak, eta estalkian panel fotovoltaikoak ezarriko dira barne-kontsumorako.

Fatxada aireztatutakoa izanen da, metalezko egituraduna, isolamendu akustikoduna eta zeramikazko pieza albeolarduna, eraikinaren irudia gaurkotze aldera. Bertara iristeko moduko estalkiak barneko aldetik isolatuko dira, eta bestelakoetan egungo isolamenduari ezarriko zaio berria. Gainera, eraikin barnera urik iragaz ez dadin egin beharreko lanak eginen dira.



## PANELES FOTOVOLTAICOS EN LA CUBIERTA DEL PARQUE INFANTIL DEL PARQUE DE LA CONSTITUCIÓN

El Ayuntamiento de Barañáin ha implantado una serie de paneles fotovoltaicos en la cubierta del parque infantil del Parque de la Constitución, destinados a autoconsumo, para compensar los consumos del edificio del Ayuntamiento y de la biblioteca municipal. Esta actuación ha contado con subvención por parte del Departamento de Industria del Gobierno de Navarra.

## KONSTITUZIO PARKEKO HAUR JOLASTOKIAREN ESTALKIKO PANEL FOTOVOLTAIKOAK

Konstituzio parkeko haur jolastokiaren estalki gainean zenbait panel fotovoltaiko jarri ditu Barañaingo Udalak, autokontsumora bideratuak, udaletxeko eta udal liburutegiko kontsumoa orekatzeko. Nafarroako Gobernuaren Industria Departamentuaren dirulaguntza jaso da horretarako.



# Calles

# Kaleak

## AVDA. RASCACIELOS Y AVDA. PLAZA NORTE

En estas dos avenidas el Ayuntamiento de Barañáin ha procedido al reasfaltado de la capa de rodadura, previo fresado, se han puesto a cota las tapas de las arquetas y se ha llevado a cabo la pintura de la señalización horizontal.

## ETXEORRATZEKO ETORBIDEA ETA IPAR PLAZAKO ETORBIDEA

Bi hiribide horietako errepidea berriz asfaltatu du Barañaingo Udalak, fresatu ondoren, kutxatilen garaiera eta errepidearena berdindu dira, eta errepideko seinaleak margotu dira.

## REURBANIZACIÓN CALLES

El Ayuntamiento de Barañáin ha adjudicado a la empresa Lacunza Hnos. S.L., por importe de 233.504 euros, la reurbanización y reasfaltado de varias calles de la localidad.

En concreto, se va a intervenir en la Avda. del Valle, junto al paso de peatones que conecta con el Parque de la Constitución; en la Avda. Central y en la ronda Cendea de Cizur. Las actuaciones van encaminadas tanto a la reparación de blandones y zonas de asfalto deterioradas, como a la renovación de las capas de rodadura allí donde sea necesario.

Así mismo, se plantea una intervención en la zona de Plaza Río Arga, a fin de reparar el pavimento más deteriorado.

## KARRIKAK BERRIZ URBANIZATZEA

Lacunza Hnos. S.L. enpresari esleitu dizkio Barañaingo Udalak herriko zenbait kale berriz urbanizatzeko eta asfaltatzeko lanak. 233.504 euroko kontratu baten bitartez.

Batetik, Haraneko etorbidean eginen dira moldaketa batzuk, Konstituzio plaza, Erdiko etorbidea eta Zizur Zendearen ingurubidea lotzen dituen oinezkoendako pasabidearen ondoan. Berriz asfaltatuko dira arrakalatutako edo hondatutako asfalto zatiak, eta baita hezetasunaren eta higaduraren aurkako geruza eman ere, beharrezko den tokietan.

Bestetik, Arga Ibaiko plazan, hondatuen dagoen zoladura konponduko da.

## PASO PEATONES AVDA. EULZA

En el acceso al centro escolar se ha realizado un paso elevado con asfalto impreso en contraste (color granate) para marcar claramente que se trata de un itinerario preferente para los peatones. Se han colocado lomos de asno previos al paso de peatones elevado, para reducir la velocidad de llegada de los vehículos. Al llevarse a cabo esta obra también se adecuó la parte de acera correspondiente al paso de peatones, reforzando su carácter peatonal mediante la sustitución de la baldosa hidráulica por adoquín.

Además, se procedió a la ampliación de las zonas previas al paso de peatones, eliminando superficie de la calzada, para estrechar el paso de vehículos y reforzar una circulación más calmada.

Por último, se colocaron luminarias específicas de refuerzo de iluminación del paso de peatones, dotadas de luz rotativa naranja para señalar a los conductores la presencia de un elemento singular.

## EULTZAKO ETORBIDEKO OINEZKOENDAKO IGAROBIDEA

Ikastetxeko sarrera parean, oinezkoendako pasabide goratu bat egin da, asfalto gorri ilunez nabarmendua, oinezkoek lehentasuna duten igarobidea dela argi ikus dadin. Pasabidera iritsi baino lehenago, autoek abiada moteldu dezaten, gila erako koskak jarri dira. Igarobide pareko espaloi zatiak ere egokitu dira, baldosa hidraulikoaren ordez galtzada-harria jarrita, oinezkoendako dela ageriago ikus dadin.

Bestalde, pasabide ingurua zabaldu egin da, errepideari zati bat hartuta, hura estutzeko eta autoek mantsoago ibili behar izateko.

Azkenik, igarobideko argiztapena indartzeko berariazko argiak jarri dira, argi laranja birakaria dutenak, gidariek hor zerbait berezi badela jakin dezaten.



## PASO PEATONES DEL CRUCE DE LA AVDA. DEPORTES Y LA PLAZA CONSISTORIAL

Se ha sustituido el pavimento de adoquín, que estaba ya muy deteriorado y hundido, por un paso elevado con asfalto impreso, pendiente de pintarse en color granate para marcar claramente que se trata de un itinerario preferente para los peatones.

Aprovechando esta obra se llevó a acabo la adecuación de los alcorques de la parte central, aumentando las dimensiones de esta zona para posibilitar árboles de mayor porte.

Como en los otros pasos de peatones elevados se ha procedido a la colocación de lomos de asno previos al paso para reducir la velocidad de la llegada de los coches.

Y para mejorar la iluminación se procedió a la colocación de señales luminosas dotadas de célula fotovoltaica, que señalan la entrada en una zona de preferencia peatonal y ciclista.

## KIROL ETORBIDEAREN ETA UDALETXE PLAZAREN ARTEKO GURUTZE-BIDEKO OINEZKOENDAKO PASABIDEA

Altzada-harrizko zorua kendu da, oso hondatua eta mailatua baitzegoen, eta irarritako asfaltozko igarobide goratua jarri da, gorri ilunez margotuko dena, oinezkoek lehentasuna duten pasabidea dela garbi ikus dadin.

Erdialdeko txorkoak ere egokitu dira bide batez, zuhaitz handiagoak aldatzeko modua egon dadin.

Oinezkoendako gainerako igarobide goratuetan bezala, honetan ere gila erako koskak jarri dira, auto gidariek abiadura moteldu beharra izan dezaten.

Zelula fotovoltaikodun seinale argiztatuak ere paratu dira, oinezkoek eta txirrindulariek lehentasuna duten eremu bat dela adierazteko.

